# AuzoEgin 2024, Ariz - Jarduketaren fitxa

## AuzoEgin 2024, Ariz - Ficha de la actuación

| | |
|---|---|
| **FITXA HONEN EGUNERATZE-DATA**<br>FECHA DE ACTUALIZACIÓN DE LA FICHA | **2024/10/22**<br>22/10/2024 |

| | |
|---|---|
| **JARDUKETA**<br>ACTUACIÓN | **Ibilgailuek espaloiak ez oztopatzea eta ikuspena hobetzea.**<br>Actuación para delimitar que los vehículos no invadan las aceras y se mejore la visibilidad |
| **Proposamenak**<br>Propuestas | ✓ **Gomazko topeak jartzea Oleta 1, 3 eta 5ean, ibilgailuak ez daitezen espaloira sartu (2).**<br>En la calle Oleta 1, 3 y 5 poner topes de goma para que los coches no invadan la acera (2).<br>✓ **Oleta kalean eta Frantzisko Kortabarria kaleko espaloietako batean, hesi baxu edo toperen bat jarri ahalko litzateke aparkalekuetan, autoek ez dezaten espaloia oztopatu (hori gertatzen denean, eragotzi egiten dute pertsona bi batera oinez joatea). Jarri ahalko litzateke Oleta kalean bertan, farolaren bat babesteko, jarritakoaren antzeko zerbait, edo Bilbondoko aparkalekuan erabiltzen dutenaren modukoa. Horrela eginez gero, kale horietako oinezkoen iraganbideak hobetu egingo lirateke —batez ere, adineko jendearentzat—. Kaleek, behar bezain zabalak direnez, horretarako aukera ematen dute, trafikoa eragotzi gabe; eta, gainera, autoek, kale horietan aparkatzean, sortzen duten bigarren lerroa ere ekidingo litzateke.**<br>En las aceras de las calles Oleta y en una de las de Francisco Cortabarria se podría poner alguna valla baja o un obstáculo en los aparcamientos para que los coches no invadan las aceras dejándolas intransitable para 2 personas a la vez. Algo similar a lo que se ha puesto para proteger alguna farola en la propia calle Oleta o como las usadas en el parking de Bilbondo. Se mejoraría el tránsito en esas calles sobre todo para la gente mayor y son calles lo suficientemente anchas para poder hacerlo sin afectar al tráfico y también se evitaría la doble fila que suele haber en estas calles.<br>✓ **Iraganbidea edo ikuspena eragozten duten aparkalekuak ekiditea. Adibidez: 1. Katalunia-Oleta bidegurutzean, debekatutako eremuan aparkatzen dute autoek, eta ikuspena eragozten dute. 2. Arizko baselizan, edukiontzien ondoan aparkatzen dute, debekatutako eremuan, eta iraganbidea eragozten dute.**<br>Evitar aparcamientos que impidan el paso y/o la visibilidad. Ejemplo: 1. En la esquina Catalunya-Oleta aparcan vehículos en zona prohibida que impiden la |

| | |
|---|---|
| | visibilidad; 2. En la ermita de Ariz aparcan al lado de los contenedores en zona prohibida y dificultan el paso. |
| **Arduraduna**<br>Responsable | **Herrilanetako Udal Brigada**<br>Brigada Municipal de Obras |
| **Hasiera-data**<br>Fecha inicio | |
| **Amaiera-data**<br>Fecha fin | **2024/10/15**<br>15/10/2024 |

| | |
|---|---|
| **Jarduketaren deskribapena**<br>Descripción de la actuación | - **Topeak jarri ditugu Oleta 1, 3 eta 5eko atarietarako sarbidea babesteko.**<br>Se ha colocado topes para defender el acceso a los portales 1, 3 y 5 de la C/ Oleta.<br>- **Oleta eta Frantzisko Kortabarria kaleen arteko topagunea aldatu dugu, kotxeek modu desegokian aparkatzea ekiditeko.**<br>Se ha modificado el encuentro de la C/ Oleta con Fco. Kortabarria para impedir el aparcamiento inadecuado<br>-**Seinale gehiago jarri ditugu Oleta kaletik Katalunia kalera irteteko tokian, modu desegokian aparkatu dezatela ekiditeko.**<br>Se ha reforzado señalización en la salida de la C/ Oleta a Cataluña para evitar el aparcamiento inadecuado<br>-**Seinaleak jarriko ditugu, 5 metrotik gorako luzera duten ibilgailuak baterian aparkatzea debekatzeko.**<br>Se va a proceder a la colocación de señales para prohibir el estacionamiento en batería de vehículos de más de 5 metros de longitud. |

| | |
|---|---|
| **Aurretiko egoera (argazkia edota testua)**<br>Situación previa (imagen y/o texto)<br> | **Oraingo egoera (argazkia edota testua)**<br>**Situación actual (imagen y/o texto)**<br> |

| | |
|---|---|
|  | 8966 MSN |